

han-hemen

Schwarzenegger ez da izango Kaliforniako gobernadore

Kargu horretarako hautagai izateko proposatu dioten arren, Arnold Schwarzenegger aktore estatubatuarak oraingoz ez dauka Kaliforniako gobernadore izateko inolako asmorik. Haren bozeramaileak esan duenez, «ez da momentu egokia». Denbora aldetik-eta nahiko gaizki omen dabil aktorea, eta gerora kargu politikoren bat hartzea baztertzen ez badu ere, oragingoz ezezkoa eman du. Gainera, egunotan *Premiere* aldizkariak argitaratutako informazioak ere ez dio bati ere mesederik egin. Sexu eskandaluarekin lotzen du informazio horrek, eta aktorearen osasun arazoak esteroideen eragina dela dio.

Xuxa berriro itzuliko da telebistara, behin depresioa igaro eta gero

Xuxa telebista aurkezleak «depresio handia» pasatu du, saio bat aurkeztzen ari zenean estudioak su hartu zuenetik. Sute haren eraginez, hamaika lagunek erreduzatu jasan zituzten. Harrezkero Xuxa animo aldetik oso zapuztuta egon dela diote haren gertukoek, eta behin betiko telebista aurkezteari uztea ere pentsatu omen zuen. Dena dela, Xuxaren ordezkari Marlene Mattosek esan du Xuxak berriro ilusioa berreskuratu duela, eta saio berri baten prestaketan duela jada burua. Aurreko saioen bidetik, oraingoan ere haurrentzako saio bat aurkeztuko du Xuxak.



IAN JACKSON / AP

Erika Nordby haurra osatzen ari da

Erika Nordby urtebeteko haur kanadarra osatzen ari da. Duela hamar egun pasatxo izoztuta aurkitu zuen amak, etxe kanpoan, eta justu justu lortu zuten bizirik jarraitzea.



JEWEL SAMAD / EPA

Emakumearen nazioarteko eguna?

Emakumearen nazioarteko egunean, begirada tristeza zuen Bangladesheko Dhaka herriko emakume honek. Egun batek bizia alaitzea zaila delako; baita egun batek bizia aldatzea ere, bistan denez.



WALLY SANTANA / EFE

Ehun urtetik gorako emakumeak ere euren eguna ospatzeko bildu dira Taibein

104 urteko Wu Lan-mei da argazkian aurrean dagoe-na, Taiwango Taiya aborigenen tribuko printzea; Taibein 100 urtetik gorako emakumeak bildu zituzten atzo, Emakumeen Nazioarteko Egunaren karietarat.

Zinema, ia sosik kobratu gabe egin daitekeen zerbait

Hala dio Alina Rodriguez aktore kubatarrak; alegia, «zinema kasik sosik kobratu gabe egin daitekeen zerbait» dela. Aktore guztien ametsa omen da zinema egitea, eta amets hori egia bihurtzea «zoragarria dela». Telebista eta antzerki munduan hainbat lan eginga da Alina Rodriguez, eta orain *Lista de espera* filma ari da grabatzen. Zinemaren, telebistan eta antzerkian, hiruretan «oso ondo» sentitzen dela dio Rodriguezek, eta hiru arloetan lan egiten jarraitzeko asmoa duela.

Gazte batek ama jo du, musikaren bolumena jaitsi ziolako

Cadizko gazte batek bere ama jo zuen herenegun, Espainiako Poliziak esan duenez ustez amak musikaren bolumena jaitsi ziolako. Gazteak 14 urte besterik ez ditu, eta logelan ari zen musika entzuten. Musika ozen-ozen zeukan jarrita, nonbait, eta ama jaistera joan zitzaionean, gazteak tximetatik tiraka eta kolpeka erantzun zion. Horren ondotik, gaztea adin txikikoen fiskaltzaren esku utzi zuen, eta haiantzako zentro batean espetxeratu zuten ondoren.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222